BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

135. zk. 2026, uztailak 17. Ostirala 1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 68/2026 FORU DEKRETUA, uztailaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua. Haren bidez, dirulaguntzen erregelamendua onesten da, zeinak garatzen baitu Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua.

Proposatu den aldaketaren bidez, berrikusi nahi da martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 43. artikulua (erregelamendu horrek Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du).

Artikulu horrek, salbuespen gisa, dirulaguntzen deialdi batek zenbateko gehigarri bat ezartzeko aukera jasotzen du, erregela jakin batzuk betez gero. Besteak beste, honako hau ezartzen du: kreditu-transferentzia bat beharrezkoa bada, transferentzia hori kasuan kasuko foru-diputatuak onartu ahal izango duela.

Aldaketaren helburua da dirulaguntza-deialdi batean zenbateko gehigarri bat ezarri ahal izatea, kreditu-transferentziak izapidetzeko baimena ematea halakoak onartzeko eskumena duen organoa dena dela, baldin eta transferentziok betetzen badute Bizkaiko Foru Aldundiaren Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 59. artikuluan eta 69. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoa.

Halaber, xedapen iragankor bakar bat gehitzen da, aldaketa hori dirulaguntzen zer deialdiri aplikatu behar zaien segurtasun juridiko handiagoz zehazteko araubide iragankor bat ezartzen duena.

Hortaz, aldatu egin behar da 43. artikulua, indarrean dagoen aurrekontu-araudiarekiko koherentzia sistematikoa bermatzeko; horrez gainera, xedapen iragankor bakar bat txertatu behar da aldaketa horren aplikazio-eremua zehazteko.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea foru arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Era berean, aintzat hartu dira Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak ezarritako izapideak.

Eskumen materialari dagokionez, dirulaguntzen arloa ekonomia- eta finantza-eremuan sartzen da; izan ere, lurralde historikoek beren eskumenak garatzeko eta gauzatzeko gaitasuna eta erregulazio autonomoa dute, Ekonomia Itunaren 48. artikuluaren arabera, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren hitzaurrean adierazitakoarekin bat. Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 artikuluaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio foru-arauak garatzeko dekretuak onartzea.

Proposamena egin duen organoaren eskumenari dagokionez, foru-diputatuei dagokie foru-dekretu hau emateko eskumena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39 k) artikuluan arautzen diren ahalmenen arabera, Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren 37. artikuluaren 2. apartatuaren 7. puntuarekin bat etorrita; izan ere, dekretu horrek ezartzen du Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetza dela organo proposatzailea, eta, 41.7 artiku-

eek: BAO-2026a135-(I-845)

luaren arabera, Laguntza eta Aholkularitza Zerbitzua da aipatutako zuzendariordetzaren laguntza eta lankidetzarako organoa.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 artikuluaren arabera,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— *Aldatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua. Haren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, zeinak garatzen baitu Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua*

Bat. Aldatu egiten da 43. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«43. artikulua.— *Gastuaren gehieneko zenbatekoa onartzea eta aurrekontu-krediturien artean banatzea.*

1. Deialdian nahitaez zehaztu behar da zein den deitutako diru-laguntzetarako gehienez erabiliko den zenbateko osoa eta zein aurrekontu-krediturri egotziko zaizkion.

Aurretik beste deialdi bat deitzen ez bada, ematen diren diru-laguntzek ezin dute gainditu deialdian zehaztutako gehieneko zenbateko osoa, hurrengo paragrafoan aurrez ikusten den kasuan izan ezik..

2. Salbuespen gisa, deialdian, kreditu erabilgarrien barruan dagoen gehieneko zenbateko osoaz gain, kopuru osagarri bat zehaztu ahalko da, eta kopuru hori dirulaguntzak emateko aplikatu ahal izateko, ez da beste deialdi bat deitu beharko. Kopuru osagarri hori finkatzeko eta erabiltzeko, honako arau hauek bete behar dira:

a) Paragrafo honetan zehazten den kopuru osagarria ezarri ahalko da, baldin eta kopuru hori egotziko zaien kredituak ez badaude erabilgarri deialdia egiten denean, baina aurrez ikusten bada erabilgarri egongo direla diru-laguntzak emateko ebazpena eman aurreko edozein unetan, kopuru hori egotea kreditua honako hauen ondorioz gehitzearen arabera baitago:

1.º Aurreko deialdietan hasieran aurreikusitako gastua baino zenbateko txikiagoko laguntza-eskaerak aurkeztu izana, prozedura bideratzeko izendatutako organoaren ziurtagiriaren arabera, betiere deialdiak aurrekontu-kreditu berberen kontura badira edo beste aurrekontu-kreditu batzuen kontura,, baldin eta haien transferentzia erabakitzen baita abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69. artikuluko 1. eta 2. apartatuen arabera.

2.º Hasiera batean aurreikusitako gastua baino zenbateko txikiagoko aurreko deialdiak ebatzi izana, betiere deialdiak aurrekontu-kreditu berberen kontura badira edo beste aurrekontu-kreditu batzuen kontura, baldin eta haien transferentzia erabakitzen baita abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69. artikuluko 1. eta 2. apartatuen arabera.

3.º Aurreko deialdietatik eratorritako obligazioak aitortu edo likidatu izana, emandako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoarekin, betiere deialdiak aurrekontu-kreditu berberen kontura badira edo beste aurrekontu-kreditu batzuen kontura, baldin eta haien transferentzia erabakitzen baita abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu

eek: BAO-2026a135-(I-845)

Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69. artikuluko 1. eta 2. apartatuen arabera.

4.º Erabilgarri dagoen aurrekontu-kredituaren zenbatekoan gehikuntza egotea, kreditua sortu, handitu edo eranstearen ondorioz.

b) Deialdian beren-beregi jaso behar da kreditu osagarri hori soilik izango dela eraginkorra baldin eta aitorpen bat badago kreditu erabilgarria arestian aipatutako inguruabarren ondorioz sortu dela adierazten duena, eta, hala badagokio, egin beharreko aurrekontu aldaketa diru-laguntza emateko ebazpenaren aurretik onartu bada.

3. Diru-laguntzaren deialdia egin aurretik, horretarako behar den gastu-espedientea izapidetu behar da, deialdian zehaztutako gehieneko zenbatekoaren bestekoa. Aurreko paragrafoaren arabera aurrez ikusi den zenbatekoari —horrelakorik egonez gero— dagokion kreditua erabilgarri dagoela deklaratu ondoren, dagokion gastu-espedientea izapidetuko da, erabilgarri deklaratutako zenbatekoaren bestekoa.

4. Diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbat aurrekontu-kredituren artean banatzen bada eta banaketa horri beren-beregi ematen bazaio estimazio izaera, banaketa hori aldatzeko ez da beste deialdi bat deitu beharko, baina gastu-espedientean egin beharreko aldaketa guztiak diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko dira.

5. Deialdi batzuetan, hain zuzen ere, aurreko paragrafoetan aipatzen diren mugen barruan deialdian bertan zenbateko osagarria zehaztu dutenetan edo zenbateko osoa hainbat aurrekontu-krediturен artean banatzeari beren-beregi estimazio izaera ematen diotenetan, organo emaileak erabilgarri dauden kredituen aitorpena eta behin betiko banaketa argitaratu behar ditu, hurrenez hurren, laguntzak emateko ebazpena eman baino lehen, deialdia argitaratzeko erabili diren bitarteko berberetan, eta publizitate horrek ez du ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.»

XEDAPEN IRAGANKOR

Xedapen Iragankor Bakarra.— *Aldi baterako araubidea*

1. Xedapen hau indarrean jarri aurretik onartu diren deialdiek aurreko araudian xedatutakoari jarraituko diote.

2. Xedapen hau indarrean jarri ondoren onartzen diren deialdiek xedapen honetan jasotako aukerak aplikatu ahal izango dituzte, baldin eta aurrekontu-zuzkidurari buruzko oinarrian edo apartatuan hala jasotzen bada berariaz.

AZKEN XEDAPEN

Azken Xedapen Bakarra.— *Indarrean jartzea*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2026ko uztailaren 9an.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

eek: BAO-2026a135-(I-845)